


E MAILA

FRANTZIA PASEALEKUKO MULTZOA



Deskribapena

Frantzia Pasealekua mendearen hasieran garatu zen, tren geltokiaren eta Santa Katalina zubiaren arteko lotura formalizatzen. Jardun horretan, Cortazarren proiektuaren arabera 1872an eraiki zen Santa Katalina zubiaren jatorrizko bost begietako bat ezabatu zen. Urumea ibaiaren eskuinaldea 1920. eta 1925. urteen artean ubideratu zen. Multzo horretan sartzen dira bertako 7 bizitegi eraikinak (10 jabetza eta posta helbidetan banatuta), guztiak III. mailan katalogatuta, eta Frantzia Pasealekuko lorategiak. Lorategi horiek banaka katalogatuta ez dauden arren, babestuta daude multzoaren parte diren aldetik. Frantzia Pasealekua eraikitzean aintzat hartutako berariazko araudian, honako profila finkatu zen: erdisotoko oina, behe oina edo bastardea, oin nagusia, bigarren oina eta hirugarren oina, mantsardan bildua (Udalaren eta Norteko Tren Konpainiaren artean lur eremuak trukatzeko aurretiazko hitzarmenak 12 metroko altuera mugatzen zuen eta mantsarda eragozten zuen –gero aldatu egin zen–). Era horretan, 1912tik aurrera eraiki zituzten lehen eraikinak, Norteko geltokitik hurbilen daudenak. Antzinako Lizeo Frantsesetik hasi eta ondorengo hirurak, bakoitza bi ataritan banatuta. Ondorioz, hiru fatxadako etxebizitzak dira. Eraikin horiek zurezko egiturarekin, eta harlandu eta harlangaitz hormekin egin zituzten. Aurreneko lau eraikinen joera nagusia XIX. mendeko hotel frantsesarena da, etxearen bolumenari eta estalkiaren formari begiratzen badiegu. Iparraldean kokatuta dauden hiruk

bereizi egiten dira; izatez, atari bakarra dute (jatorriz jabetza bakar batekoak dira) eta gainerakoez bereizten diren estiloak, profilak eta altuerak dituzte (5 zenbakikoa izan ezik, profilari eta altuerari dagokionez).

Frantzia Pasealekuko multzoaren babes erregimena

Multzoa osatzen duten elementu katalogatuetako bakoitzerako ezarritako babes erregimena osatu egingo da ondoren zerrendatzen diren zehaztapenekin. Frantzia Pasealekuaren multzoko funtsezko balioak zaintzeko multzoaren osotasunerako ezarritako zehaztapenak dira. Zehazki:

- * Finkatu egingo dira gaur egun dauden eraikinak, gaur egun dituzten altuera baldintzetan eta oin kopuruan, jasodurak baimendu gabe.
- * Eraikuntza lursailtako lorategien itxiturak babesten dira; nolahi ere, desmuntatu eta berriro eraiki daitezke, sarbideak ireki daitezke, eta lursail eta eraikuntza horien erabilerei loturiko premiengatik justifikatutako aldaketa mugatuak egin daitezke. Dena den, kasu horietan guztietan egin daitezkeen proposamenek lorategiek gaur egun dituzten itxitura soluzioak errespetatu eta imitatu beharko dituzte. Proposatutako lanak baimenduko dira aurretik aipaturiko helburu hori behar bezala betetzen badute, eta hala egingo denaren bermeak zehaztu ondoren.
- * Frantzia Pasealekuko lorategietako trazadura eta zuhaitzen antolamendua eta tamaina errespetatuko da, baita pasealekuko zona zentraletako zoladuraren izaera "biguna" ere.
- * Debekatu egingo da ibilgailuetarako sarbide arrapalak antolatzea gaur egun lorategiek okupatzen duten espazioa hartuta. Lorategien azpian aparkaleku bat proiektatuz gero, zuhaitzei eta sarbideei dagozkien baldintzak errespetatzeaz gain, eraikin katalogatuetako lursailetan defini daitezkeen aparkalekuetarako ibilgailuen sarbidea aurreikusi beharko da.
- * Gorde egingo dira: multzoaren espazio publikoan dauden lorategiak eta eskulturak; Urumea ibaiko baranda, multzo honi dagokion tartean; seinaleztapen zutabea; luminariak.

Hauek dira Frantzia Pasealekuko multzo babestuan barnean hartzen diren banako elementu katalogatuak:

1. Frantzia 03.....C maila
2. Frantzia 04.....C maila
3. Frantzia 05.....C maila
4. Frantzia 06.....C maila
5. Frantzia 07.....C maila
6. Frantzia 08C maila
7. Frantzia 09.....C maila
8. Frantzia 10.....C maila
9. Frantzia 11C maila
10. Frantzia 12.....C maila